



Atejokak etxebizitzaren inguruko inkestaren emaitzak eman ditu

ATEJOKA taldeak, etxebizitzaren inguruko egoera ezagutze aldera, inkesta egin du azken hilabeteetan herrian. Horretarako 160 inkesta egin ditu kalean eta hainbat gazte talderen artean. Orain inkestaren ondorioak eman ditu ezagutzera. Emaitzen arabera etxebizitza eskasiak gizartearen zati haundi bati eragiten dio, nola edo hala, eta elkarrizketatutako gehienak gurasoen etxean bizi dira ez dutelako beste aukerarik. /2

◆ PELOTA - HERRI ARTEKOA

Hernanik beste pauso bat eman du Elgoibarren

ELGOIBARRI 2-1 irabazi zion Hernanik joan den ostiralean, Gipuzkoako herri arteko txapelketan, eta alde polita daukate ostiralean jokatu beharreko bueltako partiduetarako. Partiduak Hernaniko kiroldegian jokatuko dira, 21:00etan, berriz ere Elgoibarren kontra. /3

◆ AHT

Gelditour iritsiko da Donostiara larunbatean

Abiadura Haundiko Trenaren aurkako erakusketa ibiltaria hilaren 31n ailegatuko da Donostiara. Usurbilen kontzertua izango da gauean. Hernanin badira sarrerak. /2

◆ ERRUGBIA

Hernani Euskadiko txapeldun

Euskadiko Kopa aurten Hernanik irabazi du, atzo Getxo taldeari 53-12 irabazita. Hernaniarrek partidu ezin hobea egin zuten eta ondo merezita ekarri zuten saria Hernanira. /3

◆ ERASDA

Ostiral gauean - su eman zioten eskabadora bati

Ostiral gauean, 23:30ak aldera, su eman zioten zaharren egoitzako haunditze lanetarako erabiltzen den eskabadora bati. Udaltzainak, ertzainak eta su-hiltzaileak izan ziren bertan. Kabina kiskalita geratu zen. II

GAUR KRONIKAN

Kirolak: errugbia, pelota, futbola, erremontea /3

Gure Txoko. Mus txapelketako irabazleak /3

Urederrara Mendiriz Mendirekin /6

Denborapasak /7

Agenda /7

Nafartarrak Ausa-Gaztelun /8



Goiz pasa ederra atzo Antziolan, sagardoaren aitzakian

SAGARDO Eguna ospatu zuten atzo Antziola auzoan, auzo elkarteak antolatuta. Eguraldiak ez bazuen ere gehiegi lagundu, asko eta asko izan ziren sagardoa probatzera hurbildu ziren auzotarrak. Mahaiaren alde batekoak eta bestekoak, sagardoazale eta zerbitzari, pozik azaldu ziren, edalontzi eta botilak eskuan. Bigarren urtea dute Antziolan sagardo festa egiten dutena. Ondo prestatu ziren, Hernaniko sagardotegi guztietako sagardoa baitzuten probatzeko. II



AUTOTALLERES SANTA BARBARA

HERNANI - 943551139

TURISMOAK - FURGONETAK - IBILGAILU INDUSTRIALA
MEKANIKA - ELEKTRONIKA - KARROZERIA

CAMPAINA BEREZIAK



PRESTATU
IBILGAILUA
ITV-AURRETIK

OLIO ETA FILTRO
ALDAKETA

69 € -TIK

LEHENENGO
NEUMATIKOAREKIN,
BIGARRENA ...

- 60%

PEUGEOT

ZERBITZU OFIZIALA

IBILGAILUEN SALMENTA

KM 0

BERRIAK

BIGARREN ESKUA

Gelditour Donostian

Datorren larunbatean izango da Zurriolan eta Boulebardean

GELDITOUR AHTaren aurkako erakusketa ibiltaria maiatzaren 4an abiatu zen, eta herriz herri ibili ondoren, datorren larunbatean, hilak 31, bukatuko da Donostian. Hori dela eta, egun horretarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte Donostian bertan.

Goizeko 11:00etan sagardo dastaketa izango da Konstituzio plazan; jarraian herri kirolen erakustaldia izango da. Alde Zaharrean barrena kale animazioa izango da eguerdira arte, eta 14:00ak aldera bazkaria egingo da Ikatz kalean. Ondoren, arratsaldeko 17:30etan, manifestazioa egingo dute.

Ilunabarrean, berriz, jaiak Usurbilen jarraituko du, frontoian hain zuzen, *Etsaiak*, *Sutagar*, *Kaotiko* eta *Naiz Roxa* musika taldeekin eta *DJ Bullen* musikarekin. Kontzertura joan nahi duenak aukera du sarrerak Hernanin bertan erosteko, Tripontzi tabernan hain zuzen, Hernaniko AHTaren kontrako taldeko kideek adierazi dutenez. Bide batez, dei egin diote jendeari antolatutako ekimenetan parte hartzeko.

Bestalde, gogoratu Gelditour ekimena dela eta, aste osoan zehar izango direla ekitaldiak Donostian, baina baita Hernanin ere, herriko AHTaren aurkako taldeak eta Gazte Asanbladak antolatuta. Izan ere, Gelditour ekimena Donostira joan baino lehen, Hernanitik pasako da. Hain zuzen, bihar astelehena iritsiko da Hernanira, arratsaldeko 16:00ak aldera. ■

Atejokak etxebizitzaren inguruko inkesta egin du eta emaitzak eman ditu

Galdetutakoen gehiengoak gurasoen etxetik joango litzatekeela adierazi du, aukera izanez gero.

ATEJOKA taldeak etxebizitzaren inguruko inkesta egin du azkeneko hilabeteetan Hernanin, kalean eta gazteen artean batez ere. Guztira 160 inkesta egin dituzte 17 urtetik gorako jendearen artean. Ondorio nagusiak honakoak dira: Etxebizitzaren arazoak herritarren gehiengoari eragiten dio; gazte gehienek etxetik alde egin nahi bai, baina ezinezkoa dute; dagoen eskaintza, alokairuarena, ez da erakargarria; jendearen diru sarreraren zati haundi bat etxebizitzara bideratua dago, emakumeen kasuan are haundiagoa, diru sarrerak oro har baxuagoak direlako.

Etxebizitzaren arazoak eragin zabala

Inkestaren emaitzen arabera, etxebizitzaren arazoak eragina du herritarren %91n. Elkarriketatutako 18-23 urte arteko %92 gurasoen etxean bizi da eta horien %85ek adierazi zuen aukera izanez gero, joango litzatekeela;

galdetutakoen 24-30 urte arteko %51 gurasoekin bizi da eta hauetatik %94ak joango litzatekeela adierazi zuen; 30 urtetik gorako artean, %16 gurasoekin bizi da eta %100a joango litzateke.

Adinean aurrera egin ahala, erosteko joera haunditu

Gurasoen etxetik kanpo bizi direnen artean, adinak aurrera egin ahala, alokairuan bizitzetik erosteko joera sumatzen da. 18-23 urte artekoen %66 alokairuan bizi da, %17 erositako etxean eta %17 bestela; 24-30 urte artekoen %69 alokairuan bizi da eta %31 erositako etxean; 30 urtetik gorako artean %20 bizi da alokairuan, %67 erositako etxean eta %13 bestela.

Alokairuzko etxeak, etxe hutsetatik hasita

Atejokak, arazoari aurre egiteko, honakoak proposatu ditu:

alokairuzko etxebizitza parke publiko erakargarria sustatzea, hutsik dauden etxe hutsetatik hasita. Horretarako, etxebizitza hutsen zerrenda sarean jarri du eskuragarri eta dei egin die herritarrei eguneratu dezaten. Zerrenda 2000garren urtekoa da eta eguneratzea da helburua. Etxebizitza hutsen zerrenda www.atejoka.jazztel.es web orrian dago eta atejoka@gmail.com da informazioa helarazteko helbidea.

Bestetik, garrantzitsua da Atejoka elkartearen ustez, aldarrikapen hauek kaleratzea eta adieraztea «bai erakunde publikoei, bai espekulazailerei».

Okupazioari buruzko bilera ostegunean

Okupazioari buruzko xehetasun legalen inguruko bilera informatiboa izango da gaztetxean ostegunean. Arratsaldeko 20:00etan. ■

❖ SANTA BARBARA ELKARTEA

Haur danborradako entsaioa ostegunean

Santa Barbara elkarteko haur danborradako entsaioak ostegunean hasiko dira, hilaren 29an. Entsaioak astelehen, astearte eta asteazkenetan izango dira, 18:30etan, elkartean bertan. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute 943 552763 telefono zenbakira deituta.

Danborrero izateko 7 urte baino gehiago izan behar dira eta sukaldari edo kantinera izateko 4 gutxienez. Jantziei dagokienez, prezisoak dira galtza txuriak, larruzko gerrikoa eta oinetako ilunak. ■

❖ ZABALETA AUZOA

Asteartetik igandera jaiak

Lasarte-Oriako Zabaleta auzoko jaiak hasiko dira asteartean. Umeentzako eskulanak izango dira 18:00etatik aurrera; 19:30etan antzerkia izango da eta 20:00etan japoniar bonbak. ■

❖ EMAKUME ZENTROA

Eskulan erakusketa

astelehenetik ostegunera

Elkano 17ko Emakumeen Zentroko kideek urtean zehar egindako lanak izango dira ikusgai bihartik aurrera Biteri kultur etxean, 16:00etatik 20.00etara. ■

❖ HITZALDIA

Adimen emozionalari buruzko hitzaldia gurasoentzat

Adimen emozionalari buruzko hitzaldiak izango dira gurasoentzat, bihar eta datorren astelehenean, Hilario Garrudo adi-tuaren eskutik. Biteri kultur etxean izango dira, 15:00etatik 16:30etara. ■

❖ CHILLIDA LEKU

Pintura lehiaketa datorren larunbatera atzeratu da

Atzo Chillida Lekun egitekoa zen pintura lehiaketa datorren larunbatera atzeratu da, euria ari zuelako. Lehiaketa Tamayo dendak antolatu du eta aldeztu aurretik izena eman behar da Tamayo dendetan edo honako helbidean: www.tamayo.es. ■

❖ BERTSOLARITZA

Hernaniarrak fin, Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan

Hernaniarrak Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalera iritsi dira. Helduen mailan, Asier Azpiroz iritsi da finalera. Azpiroz izatez zubietarra da baina Hernaniko Bertso Eskolan ari da umetatik; lehen aldia du finalera iristen dena. Txikien taldea ere finalera iritsi da;

bertan dira Eñaut Martikorena, Jon Iturbe, Eli Pagola eta Aingeru Otxotorena. Finala Iruran jokatu da, hilaren 30ean, ostirala, 16:00etan. Aurretik bazkaria egingo dute. ■

❖ KIROLDEGIA

Ur ludoteka gaur

Ur ludoteka izango da gaur igerilekuan, 11:00etatik 13:00etara; umeek eta helduek uretan primeran pasatzeko aukera. ■

❖ HITZALDIA

Xabier Sansinanearen hitzaldia ostiralean

Ostiralean Xabier Sansinane hernaniarrak hitzaldia emango du, JOCC-Zikuñako Ama zikloturista taldeak antolatuta. Sansinaneak txirrindularitzako kalte ohikoenaz eta hauen tratamenduez hitz egingo du. Hitzaldia, hilaren 30ean izango da, Biteri kultur etxean, 20:00etan. ■



Kantuz abesbatzaren emanaldi bikaina atzo. Kantuz abesbatzak emanaldi bikaina egin zuen atzo iluntzean Milagrosan. Kantuz eguna ospatu zuten eta horretarako kontzertu berezia prestatu zuten. Guztira 13 pieza abestu zituzten, besteak beste, *Heleluyan*, *Kantuz gara*, *Canción de Jinete*, *Laudate pueri dominum* eta *Volver* izenekoak. Bete-bete egin zen Milagrosa eta gozatu ederra hartu zuen jendeak.

Kantuz abesbatzak jakinarazi du ospakizun berezietan (bodak, ezteiak...) emanaldiak egiten dituztela eta honako zenbakia eman dute harremanetan jartzeko: 943 555469. ■

◆ ERRUGBIA

Euskadiko Kopa Hernanira

HERNANIK irabazi du aurtengo Euskadiko Kopa, atzo Getxori 53-12 irabazi ostean. Hernaniarrek lehendabiziko jokaldian egin zuten entsaioa, jokaldi luze baten ondoren, eta hortik aurrera ez zuten kontrariorik izan. Lehen hogei minutuetan markagailuan alde haundia lortu zuten, eta bigarren zatian horri eustea egin zuten. Zortzi entsaio egin zituzten hernaniarrek: Gurutzek 1, Oierrek 1, Etxabek 1, Larrañagak 1, Bolik 1, Otañok 1 eta Genuak 2. Transformazioak Genuak eta Oierrek egin zituzten. Bazkaltzen gozatu zuten ondoren, jokoan ondo irabazitakoa. ||



◆ PELOTA - HERRI ARTEKOA

Hernanik 2-1 irabazi Elgoibarren kontra

Hernanik 2 partidu irabazi zituen eta 1 galdu, ostiralean, Elgoibarren kontra, Gipuzkoako herri artekoan. Kadeteetan Aizpitarte Ilak eta Lizeagak 22-3 irabazi zuten; jubenetan Noblek eta Otaegik 5-22 galdu; eta nagusietan Erroizeneak eta Gorrotxategik 22-13 irabazi. Datorren ostiralean berriro Elgoibarren kontra jokatu dute Hernanin, oraingoan bentajarekin. ||

◆ FUTBOLA

Anaitasunaren kontra gaur ligako azken partidua

Gorengoan mailan, Hernanik ligako azken partidua jokatu du gaur, 16:30etan, Azkoitiako Txerloia zelaian. Hernanik ez du ezer jokoan, sailkapeneko 8garren postuan baitago.

Jubenilen Ohorezko mailan, bestalde, Hernanik partidu garrantzitsua du gaur, 15:30etan, Zubipen, mailaz ez jaisteko Elgoibarri irabazi egin behar baitiote. ||

◆ ARETO FUTBOLA

Hernanik galdu egin zuen atzo Zaldibiaren kontra

Hernaniko Yone Boutique taldeak 4-3 galdu zuen atzo Zaldibiaren kontra, bukaera arte zein baino zein aritu ziren arren. Hernaniarrak nagusi izan ziren partidu guztian zehar, baina zaldibitarrek punter horrea izan zuten. 1-0 galtzen joan ondoren, 1-2 aurretik jarri ziren, 3-2 atzetik, 3-3 enpate eta 4-3 galdu azken minutuetan. Hurrengo astean atsedena dute. ||

◆ ERREMONTA

Thermotechnic txapelketa berezia gaur hasiko da

Ezkurra eta Zeberio Ila elkarrekin ariko dira gaur Galarretan, Altuna II eta Etxaberen kontra, Thermotechnic txapelketako lehendabiziko partiduan. Une honetako bi aurrelari onenak, beraz, elkar hartuta ariko dira gaur. Jaialdia 16:30etan hasiko da, eta beste bi partidu ere izango dira: Matxin III-Zubizarreta / Zalakain-Agirrezabala; eta Iñigo-Aizpuru / Altuna I-Olazar. ||

◆ MUSA

Naharro eta Mandi berriz ere txapeldun Gure Txokon

GUSTOKOA dute nonbait txapela Naharro eta Mandik, atzo berriz ere jantzi baitzuten, lehengo urtean bezalaxe, Gure Txokoko mus txapelketan. Eta ez da bigarren aldia bakarrik txapela jazten dutena, aurretik ere jantzi izan baitute. Bigarren saria Javi eta Angel Marik eraman zuten. Giro ederrean banatu zituzten sariak, elkarte bete jende, eta eskerrak eman ere bai bere laguntza eman duten taldeei.

Bestalde, bazkideei gogoratu zieten ekainaren 7an, larunbata, afaria egingo dutela elkartearen 27garren urteurrena ospatzeko. ||



Aurpegi bakoitzak bere estiloa dauka



AURPEGI TRIANGULATUA

Betaurreko luzeak eta dibertigarriak zure aurpegiko angeluak konpentsatzeko

biokbi
optika
Antziola, 14 - Tel.: 943 33 68 86



AURPEGI OBALATUA

Betaurreko txiki eta ausartekin zure pertsonaltatea azpimarratuko duzu

Aukeratu zureak!,
aholkatuko zaitugu



AURPEGI BOROBILA

Betaurreko errektangularrak zure bolumenak ekilibratzeko

Alejandra Alcibar

Optiko Optometrista. 12.244 zkia.

R.P.S. 174/06

Hernaniko Udala



Hernani-Gipuzkoa

Aurtengo udan Saharako haurrik ez Hernanin?

Famili hartzaile bila gabiltza. Animatu!

BILERA INFORMATIBOA: MAIATZAREN 28AN 19:30EAN BITERIN.

INFORMAZIOA
ETA
IZEN EMATEA

Udal lankidetzara arloa
943-337017 - 943-336802 - marijo-m@hernani.net
Epea: maiatzak 30

Ertzetako komunikazioak du izena Gorka Setienen poema liburu berriak. Hainbat urtez libururik argitaratu gabe egon ondoren duela bi urte plazaratu zuen *Aparkalekuko felizidadia* liburuxka. Lan horrekin hainbat errezitaldi

eskaini zituen herriz herri. Orain berriz, hiru ataletan banatutako poema liburu autoeditatua argitaratu du. Liburua bere kontutik argitaratzea zergatik aukeratu duen galdetuz hasi dugu elkarrizketa.



Gorka Setien - Idazlea

«Haurtzaroa da jendea izorratzeko aro ederrena»

Gorka Bereziartua

Autoeditatu egin duzu liburua, zergatik?

Nahiko sinplea da: editorial batekin saioa egin nuen eta ia urtebete pasa dut erantzunik gabe. Gogoia neukan liburua argitaratzeko, baina ez liburuarekin atez ate ibiltzeko. Nik atera dut eta zabalpena ere nire kontutik egingo dut. Hasi naiz zabaltzen, oso gutxi oraindik, baina bueno, presa haundirik ere ez daukat.

Non dago salgai?

Orain bertan hiru tokitan dago: Bilbon Gatazka gunean, Errenteriako Mikelazulon eta Hernanin Kitto tabernan. Leku gehiagotan jartzen saiatuko naiz, Iruñeara joateko asmoa daukat eta gaztetxeren batera ere bai.

***Ertzetako komunikazioak* jarri diozu izena. Ez da liburuan dagoen hitz joko bakarra: herri jasotzailea, asepsianatoa...**

Jolasa da azkenean, hitz batzuei bigarren edo hirugarren zentzua bilatzea. Hasieran

liburuaren tituluan "komunikazioa" jarri nahi nuen, baina esan nuen: "komunikazioa? hainbeste komunikatzen omen garen garai hauetan?". Ez dakit hainbeste komunikatzen ote garen, akaso komunikazioaren ukazio bat dago. Hortik abiatu nintzen, jolas bat bezala egiten. Eta ertzetakoa akaso nik gauzak ikusteko hartzen dudana lekuarengatik da.

Askotan aipatzen duzu liburuan ertzarena. Marginalitatea aldarrikatzeko

modu bat da?

Ez dakit marginalitatea den, baina zenbait pentsamendu eta sentimenduk jendarte honetan ertzera eramaten zaituzte azkenean, ez direlako onargarriak. Edo neronek hartzen dut jarrera hori homogeneitate kulturalarekin diferentzia bat egiteko. Badirudi marginala gogorra dela, baina poema batean aipatzen dut ertzetan bizi arren jende goxoa garena. Bizi zaitezke ertz batean oso modu humanoan.

Homogeneitate kulturala

esan duzu. Telebistak saltzen duen homogeneitateaz ari zara ala gure mundu hurbilaz ere bai?

Dena da auzitan jartzekoa. Kultura eta morala batera dijoazte. Adibide bat: badago lanarekiko halako miresmen moduko bat, gure kulturen oso sartua dagoena eta niri ergelkeria hutsa iruditzen zaidana.

**Poemen artean asko errepi-
katzen da euria motibo
modura. Zergatik?**

Horrela da, eurizale amorra-

Yaben English School
Iturriaga z/g. 20120 Hernani Tel.: 943 33 17 63

UDARAKO IKASTAROAK

UZTAILA
IKASTARO INTENTSIBOAK
adin guztientzat

UZTAILA
UDALEKUAK
4 urte - 10 urtekoentzat.

MATRIKULAK EKAINAREN 1etik 20ra
Goizetan, 10:00-12:00 - arratsaldean 17:00-19:00

University of Cambridge Local Examination Syndicate. Zentro baimendua ES 409

Amegar

**50 urte
hernaniarrekin
1958-2008**

ESKANTZA
FORMIKAZKO
SUKALDEETAN
Ordaintzeko erraztasunak
- Finantziaketa -
- 12 hilabetetan interesik gabe -

sony 32"
679€

Erabili ezazu
BERRIAK Txartela

Txirrita kalea, 13-15 Tel.: 943 55 11 25 - Faxa: 943 55 16 03

tua naiz. Euria eguzkia bezainbeste maite dut, edo gehiago. Goxotasuna ematen dit, barruak mugitzen dizkit.

Baina eguraldiaren partean "eguraldi txarra" dela esaten dute...

Esamoldeak dira. Txarra omen da euria... Baina jendea euriaren zain. Kejatu egin behar dugu, beroa egiten badu beroaz, euria egiten badu euriaraz. Euriarena nire barruko zerbait da, euria ari duenean piztu egiten naiz barrutik eta horrek gainera idazteko gogo sortzen dit, pentsatzeko, ibiltzekoa...

Asko azaltzen den beste ideia bat haurtzaroa da, umeak. Poesia haurtzarora bueltatzeko tresna da zuretzat?

Ez. Haurtzaroa da jendea izorratzeko aro ederrena eta uste dut hori nahiko nabarmena dela ikusirik helduak ze umeak garen: badago osatu gabeko haurtzaro bat, ondo izorratua. Hor oinarritzen dira hainbeste gauza, nik horren aldarrikapena egiten dudala. Ze gainera, haurrak gu baino askoz azkarragoak dira. Gu askoz mugatuagoak gaude, kulturak mugatu gaitu, egurak mugatu gaitu...

Muga horiek jartzerakoan eskolak izango du zeresana. "Dinamita ditzagun eskola guztiak ea nor kexatzen den" diozu poemetako batean.

Bideratuak gaude; eskolen

itxura eta programazioa ikustea besterik ez dago. Ze ibilbide egin dugun, zenbat energia gastatu ditugun eskoletan... eta alfer alferrik! Soldaduska bezala da, gaur egun planteatzen den bezala, nik gorrotatu egiten dut eskola, pertsonak izorratzeko beste modu bat iruditzen zait. Hortik bakoitza ahal den moduan salbatzen da, eta ahal dugun lekutik ateratzen gara. Eskerrak gaitasun hori badaukagun oraindik.

Poesia izan daiteke hortik salbatzeko modu bat?

Poesia nire mundu ikuskera da. Liburu hau nahiko gogorra da, umore gutxiko poesia da batez ere lehenbiziko bi zatietan, edo umorea baldin badauka ere ironikoa da, beltza, zinismo pixka bat ere bai...

Alde gogor horrekin lehen aipatu duzun samurtasuna ere badago ordea.

Egunerokotasuneko kontuak daude. Badaukat lagun bat, berak ere idazten du, eta esaten du poesia idazteko egunerokoa bizi behar dela poesia izango balitz bezala. Hori besterik ez da: azkenean denda batera sartu eta nahikoa duzu segundu bat, denda horretan ikusi duzun gertakizun bat, hitzetan jartzeko. Jaikitzen zarenetik zenbat estimulu izaten dituzun, horixe da.

Zenbat denbora hartu dizu liburua idazteak?

Orain dela urte pare bat

poema liburuxka bat kaleratu nuen, *Aparkalekuko felizidadia*, baina liburua atera gabe hogeita bi, hogeita hiru urte neramatzan. Hura editorial batekin atera nuen, baina ez zitzaidan gustu onik gelditu eta utzi egin nion liburu batean pentsatzeari, idazteari utzi gabe. Publikatu nituen poemak aldizkari desberdinetan, kolaborazio batzuk, letraren bat kantaren baterako... Baina harra beti hor neukan sartuta, beste liburu bat nahi nuela. Hogeita hiru urte berandua azkenean egin dut. Nola idatzi dudana? Behin ere ez diot idazteari utzi. Hemengo poemak azkeneko hiru urteetan idatzitakoak dira. Idatzi, idatzi, idatzi, bildu, zuzendu, mila buelta eman eta azkene-

ko urtean egin dut bilduma ahalik eta txukunena. Beti idatzi izan dut eta oraindik materiala badaukat.

Hemendik aurrera liburu honetan sartu ez den material hori publikatzeko asmorik baduzu?

Bueno, hurrengo lanarekin hasi naiz, animatu egin naiz oraingo honekin. Ez dakit noiz izango den, baina ez ditut hogeita bi urte tardatuko.

Gustura geratu zara lan honekin, zure erritmoa jartzearekin alegia.

Bai eta martxa hartu diot. Hurrengoa ez dakit nola izango den, neronek editatuko dudana edo beste norbaitek. Gauza idaztea da. Gainera

gertatzen dena da zerbait idazten duzula eta "egin dut" esaten duzu. Baina gero konturatzen zara "banatu egin behar dut, zabaldu egin behar dut"...

Hori ere zaila izango da, hau da, zuk liburua atera eta burua beste kontu batzuetan duzunean etortzen gara gu galderak egitera.

Bueno oraindik ere banabil liburu honekin. Lehengoan egin nuen aurkezpene Mikelazulon eta oraindik ere hor nabil, zurrumbilo txiki horretatik atera ezinda. Eta atera nahi dut, baina konturatzen naiz neronek egin behar dudala banaketa... Baina bueno, hurrengo kapituluan nago dagoeneko.

Hurrengo liburuko tonua antzekoa izango al da?

Ez, samurragoa izango da. Eta, ez dakit nola azaldu, diskurtsiboagoa-edo. Ni neu pertsona bera izango naiz, beti liburu bera idazten ari omen gara, baina modu samurragoan esango ditut gauzak, nahiz eta kalean ikusten ditudan gauzak ez diren batere samurrak; alde-rantziz, gero eta gogorragoak dira eta hori da niri interesatzen zaidana. Baina beste tonu lasaiago bat emango diot.

Zergatik aldaketa?

Gogoia ematen dit. Badauzkat apunte batzuk hartuak eta horiek berridazten ari naiz. Konturatu naiz poemak lasaiago ateratzen ari zaizkidala. Hori forma aldetik, ze edukia mundu honetan...

Azken poeman "Geure buruaz beste/ gauza bat egin" diozu. Heriotza bate-tik, alternatibaren bat beste-tik. Non kokatzen duzu zure burua?

Ertzean, amildegia eta zelaia-ren arteko xenda horretan. Edo zure buruaz beste egiten duzu, edo zure buruaz beste gauza bat egiten duzu. Nik gure buruaz beste gauza bat egitearen aldeko apustua egiten dut. II



DISEINU GRAFIKO eta sormenean oinarritutako heziketa

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak

TITULAZIO OFIZIALAK

Nazioarteko lehiaketak praktikak atzerrian

ceinpro

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . MARKETING . PUBLIZITATEA . SERIGRAFIA .

ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA .

INFORMAZIOA 943 310 873

Heriz Pasealekua 95 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 310 875 www.ceinpro.es

Euskara irakasle izan nahi duzu?

aek

GLOTODIDAKTIKA IKASTAROA
Euskara irakasteko oinarritzko prestakuntza

Ekainaren 30etik uztailaren 24ra,
Antiguako AEK euskaltegian

Informazio gehiagorako, deitu 943327172 telefonora
(Gipuzkoako AEK)

Ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologaziorako baldintzak betez gero, AEKren lan politan izateko aukera izango duzu

Urederrako iturburua Igarabaren azken txokoa



MENDIRIZ MENDI

Mendiriz Mendik proposatutako ibilbidea Urbasa eta Andiaiko Parke Naturalean kokatua dago oraingoan; Nafarroako Bakedano herritik abiatuta. Urederra Urbasa eta Andiaiko Parke Naturalean kokatuta dago. Bere ingurumenaren balioagatik (paisaia, fauna eta flora) eta duen aberastasunagatik Nafarroako Gobernuak 1987garren urtean Erreserba Naturala izendatu zuten.

Nola iritsi Hernanitik

Zudairi herriraino joan behar da eta bertatik Bakedanora. Zudairira joateko aukera ezberdinak daude. Bi aipatuko ditugu: Altsasura hurbildu N-1 errepidetik eta bertan Urbasako errepidea (NA-718) jarraitzea da lehenengo aukera.

Bigarren aukera da A-15 autobidea jarraituz Iruñera hurbiltzea eta bertan A-12 autobidea hartzea Lizarraraino. Lizarran Gasteizeko norabidea jarraitu eta handik kilometro gutxi batzuetara Zudairira eramango gaituen errepidea hartu (NA-718).

Ibilbidearen deskripzioa

Elizaren atzeko aldetik, jatetxe baten albotik pasatzen den asfaltuzko bidea jarraitu behar da. Herriko azken etxeen albotik igarotzerakoan asfaltuzko bidea lurrezko pista bihurtzen da. Pista jarraitu, arte zahar batzuk daudden tokira iritsi arte. Hemendik Urederra haranera, beheko aldera doan pista hartu. Bideak ez du galarririk, egin behar den gauza bakarra errearen ezker bazterra jarraitzea da (kontuan izan ibaien bazterrak urkorrontearen norabidearekiko kontuan hartzen direla).

Pista berehala bidezidor bihurtzen da. Piskanaka gora egiten du. Bidexka jarraitzea erraza da. Erreka bazterrari ahal den hurbilen jarraitu behar zaio, erreka eskaintzen dituen aukerez gozatzeko. Ur-jauzi batera iristean, erreka gurutzatu eta beste aldera pasa behar da. Goraxeago, eskaloiak dituen bidexka bat dago. Horri jarraitu eta iturburura eramango gaitu. Itzulia leku beretik egiten da.

Kontu interesgarriak

Urederra Urbasaren bihotz karstikotik sortzen den erreka da. Urbasak jasotzen dituen ur gehienak kobazulo eta lurrazpitik ibili ondoren hemendik dute ateera. Urteen poderioz uraren higadura lanak Urederrako zirko ikusgarria eratu du. Zirkoa 300 metroko desnibela hartzen duten kareharritzko amildegiz osatuta dago. Iturburua zir-



Mendiriz Mendiko irteeretan parte hartzen duen gazte kuadrila.

kuaren erdialdean aurkitzen da. Euri asko egiten duenean 30 metroko altuera har dezakeen ur-jauzi ikusgarria sortzen da bertan.

Beste lekuetan urriak diren ugaztunak topa daitezke: basakatua, lepazuria, azkonarra edo basurdea.

Urederra erreka zoragarria da, landare eder eta urdin-turkesa koloreko putzu gardenen artean egiten du urak bidea. Ibilbide guztia itzaletik egiten da. Bidexketatik putzuak, ur-lasterrak eta ibaiaren bidean sortzen diren ur-jauziak ikus daitezke.

Ibilbidean pagoak dira nagusi. Oso nabarmena da zuhaitz, zuhaixka eta flora aniztasuna; eremu txiki batean, espezie ugari aurkitzeko aukera dago. Fauna ere ugaria da. Inguru hauetan hegazti mota asko aurki daitezke, baita beste leku batzuetan urriagoak diren ugaztunak (basakatua, lepazuria, azkonarra edo basurdea). Azkenik esan, inguru hauek direla Euskal Herrian igarabaren (Nutria nutria) azken txokoak.

Edozein une da ona Urederra bisitatzeko. Udaberrian hosto berrien kolore berdeaz gozatuko dugu, udaran basoko itzalpeaz, udazkenean gorri, hori eta laranja kolore nahasketa ikusgarriaz eta azkenik neguan, elurraren zuritasunaz. Basoaren kolore horiek inguruko kareharriaren eta harriak eta enborrak estaltzen dituen goroldioaren kolore berde biziarekin

nahasten dira beti.


Iturburuaren goiko aldean, historiaurreko aztarna megalitikoak daude, esaterako, Bakedanoko Puerto Viejo trikuharria eta Zurgaingo tumulua. Ibaiaren ibilguak eraginda funtzionatu zuten: bi irin-errotak (Zudairi eta Artatza), bi ibai-burdinolak (Bakedano) eta arma fabrika batek (Bakedano). Gaur egun, iturburuko urak zentral

hidroelektriko bat elikatzen du (Zudairi). Ezkerreko aldean, Erdoitza herria zegoen, baina XIV. mendetik ez da inor ere bizi bertan.

Ingurune honetako aberastasuna dela eta, guztion ardura da berau babestea. Beraz, kasu egin seinaleei, bidetik ez irten eta jarraitu adierazitako ibilbidea. Errespetatu abereak eta lotuta eraman txakurra. II

Datu interesgarriak

- **Distantzia:** 6 kilometro.
- **Denbora:** 3 ordu.
- **Desnibela:** 250 metro.
- **Zailtasuna:** Zailtasun berezirik gabekoa.
- **Beharrezko materiala:** Mendiko material arrunta. Prismatikoak izanez gero, komeni eramatea, hegaztiak ikusteko.
- **Mendiriz Mendik** ekainaren 8an egingo du irteera hau gaztetxoekin.



Denborapasak

S U D O K U - a

			4	1				
4	3		6				7	
	6			5	9			
8		6			4	7	3	
	7						4	
	2	4	7			8		5
			9	4			1	
	5				6		2	8
				3	5			

Hutsik dagoen kasila bakoitzean zenbaki bat jarri behar duzu, 1etik 9ra. Lerro, zutabe eta lauki (9 kasilekin osatutakoa) guztietan, 1etik 9ra zenbaki guztiak osatu behar dira. Baina, lerro, zutabe eta lauki bakoitzean ezin duzu zenbaki bera errepikatu.

AURREKO IGANDEKO ERANTZUNA

2	3	8	6	4	9	7	1	5
5	9	4	3	7	1	8	2	6
7	6	1	8	5	2	4	3	9
4	7	5	9	3	6	1	8	2
6	1	2	7	8	4	9	5	3
9	8	3	2	1	5	6	7	4
1	2	6	5	9	7	3	4	8
8	4	9	1	2	3	5	6	7
3	5	7	4	6	8	2	9	1

Flash batean...

'Udaberria'
Maite Arrieta



Zuen argazkiak hemen argitaratuko ditugu. Ekarri Larramendi 11ra edo bidali e-mailez internet@kronika.net helbidera. Argazkiek Hernani edo hernaniarrekin zerikusia izan behar dute. Aukeraketa Kronikak egingo du.

X Asteko agenda

MAIATZAK 26, astelehena:

- **Erakusketa:** Eskulan erakusketa. Elkano kaleko emakume taldearen eskutik. Biterin, ostiralera arte.
- **Erakusketa:** Biteriko tailerretan umeek egindako eskulan erakusketa. Biterin, ostiralera arte.
- **Guraso topaketak:** Bizitzarako trebetasunak: Adimen emozionala. Biterin, 15:00etatik 16:30etara.
- **AHTaren kontrako astea:** Gelditour erakusketa ibiltariaren etorrera.
- **Zilegi Eskola:** Sexualitatea. 14:30etatik 16:30etara.
- **Erakusketa:** Saharari buruzko erakusketa. Ostiralera arte.

MAIATZAK 27, asteartea:

- **Gazte Txokoa:** Gazte zinema.
- **Ipuin kontaketa:** Lur Korta. Udal liburutegian, 17:30etatik aurrera, 3-4 urteko umeentzat; 18:00etatik aurrera, 5-7 urteko umeentzat.
- **Ikastaroa:** Hazi nahi duten pertsonentzat. Gizarte partehartzeari buruzko prestakuntza ikastaroak. Baketik-ek antolatuta. Biterin, 19:00etatik 21:00etara. Ostegunera arte.
- **Zilegi Eskola:** Sexualitatea. 14:30etatik 16:30etara.
- **AHTaren kontrako astea:** Bizikleta martxa. Gaztetxetik, 19:30etan.

MAIATZAK 28, asteazkena:

- **Gazte Txokoa:** Kandela tailerra.
- **Bilera informatiboa:** Oporrak Bakean egitasmoa, Saharako haurrak ekartzeko udan.
- **Chillida Leku:** Materializaciones 2. Erakusketaren inagurazioa, 19:30etan.
- **Zilegi Eskolak:** Zeramika. 14:30etatik 16:30etara.
- **AHTaren kontrako astea:** Hitzaldia. Biterin, 19:30etan.

MAIATZAK 29, osteguna:

- **Gazte Txokoa:** Kandela tailerra.
- **Zilegi Eskolak:** Sorgintasuna. 14:30etatik 16:30etara.
- **AHTaren kontrako astea:** Parodia, herrian, 18:00etatik aurrera; Kontzentrazioa, Renfen, 19:30etan.

MAIATZAK 30, ostirala:

- **Gazte Txokoa:** Futbolen lehiaketa.
- **AHTaren kontrako astea:** Manifestazioa, plazatik, 20:30etan; Kontzertuak: Trifulka, Ania eta sorpresa, 22:30etan.

MAIATZAK 31, larunbata:

- **Gazte Txokoa:** Surf ikastaroa.
- **Astigarraga:** Ludijaia. Haurrentzako jolasak. Apeztegi plazan, 17:00etatik 20:00etara. (Eurria eginez gero, Foru Plazan)
- **Bigarren Eskuko Azoka:** Atsegindegina, 10:00etatik 14:00etara.
- **AHTaren kontrako astea:** Donostiara joateko deialdia.

EKAINAK 1, igandea:

- **Erromesaldia:** Lurdesera.
- **Zikuñako Ama:** Nuarbera irteera.
- **Ibilaldia:** Leitzara. Elur Txorik antolatuta.

ARALAR
TABERNA

ZAPA KALEA 8
943 33 15 06

XXIV MUS TXAPELKETA
ASTEKO PARTIDAK

MAIATZAK 26, ASTELEHENA

AITOR-IÑAKI/JULEN-UGAITZ
CANO-JOXIAN/XALBA-PITXURRI
KETXUS-PAKO/JUAN-MANOLO
BELTZA-MIKEL/JAVIER-PELLO

MAIATZAK 27, ASTEARTEA

XARPA-MITXELENA/INTXAUR-INTXAUR
OSKARIN-JOKIN/OSTO.-POLLO
ROBERTO-IÑAKI/IMANOL-JEXUX
JUAN-TXATO/XABIER-IÑAKI

MAIATZAK 28, OSTEGUNA

JOSU-GORKA/JOSEBA KARLOS
JAVI-BIBI/CECI-BITXO
JAVI-PATXI/FELIX-JAVI
RAFA-KAKI/JONKAR-JOSEBA

MAIATZAK 29, OSTIRALA

ANTTON-JOXE LUIS/ARKAITZ-AITZOL
JULIO-MANTXA/TXONI-TXUTXI
JOSEBA-SIMON/KARLOS-JAVI
TXOMIN-JAVI/MANU-JOXELEON

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN
LAN ESKAINTZA

Soziolinguitika Klusterra administrazioa baten bila dabil.

GARATU BEHARREKO LANAK:

Administrazioa lanari lotuta ondorengo lan nagusiak garatu beharko ditu: kontabilitatea eraman, dirulaguntzen kudeaketa, aurrekontuaren kudeaketa, ordainketa - kobraketen kontrola,...

OINARRIZKO BALDINTZAK:

- Administrazioa lanean esperientzia izatea
- Euskara maila ona izatea

BALORATUKO DA:

- Lan taldean aritzeko gaitasuna
- Ofimatika programak erabiltzeko gaitasuna

LAN BALDINTZAK:

- Egun erdiko kontratua

LAN-TOKIA:

- Andoain. Martin Ugalde Kultur Parkea

EPEALDIA:

- Berehala hasi eta 6 hilabetetako frogaldia.
Ondoren kontratua luzatzeko aukera izango du

PROPOSAMENAK AURKEZTEKO:

Bidali Curriculum-a
Epe muga: 2008ko ekainaren 2ra bitartean
Nora bidali: iker@soziolinguitika.org edo
Soziolinguitika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA

☎ **TELEFONOAK** 1 **Taxiak:** 943 550093 1 **Udaltzaingoa:** 943 248900 1 **DYA:** 943 464622 **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 1
Anbulatorioa: 943 006666 1 **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 1 **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
FARMAZIAK 1 **Egumez:** **Etxebeste** Elkano 2 - 943 552087 1 **Gauetz:** **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA **GAUR** Giro ezezonkorra. Goiza lasai antzera baina arratsaldean zaparrada trumotsuak. Hego ukituko haizea dela eta, tenperaturak gora egingo du pittin bat.
BIHAR Aldaketa gutxi; giro ezezonkorra. Zaparradak izango dira eta berriz ere trumoi soinuak, batez ere arratsalde partean. Temperatura epel antzera mantenduko da; 20 °Cko maximak. (euskalmet)

«Hemen gara, nafartarrak gara»

HORIXE esanaz eta Euskal Herriaren eta Nafar Estatuaren askatasuna eskatuz bukatu zuten Ausa-Gazteluko ekitaldia, Hernanialdeko, Gipuzkoako eta gainerako lurraldeetako «nafartarrek». Izan ere, joan den asteburuan 100 lagunetik gora joan ziren Larraitzetik Ausa-Gaztelu mendira eta bertan komunikatu bat irakurri, Nafarroako Gorteetako ereserkia, Erribera eta bertsoak kantatu zituzten. Ondoren Larraitzera jaitsi ziren lagun arteko bazkari ederra egitera.



100 lagunetik gora bildu ziren Ausa-Gaztelun.

«Nafarroa herri askea zen» Mendi tontorrean irakurri zuten komunikatuak nabarmentzen du garai batean Nafarroa herri askea zela «gobernu burua zuen, Gorteak, Kontseilua eta armada; European ordezkariak zuzena zuen eta Konstituzio mai-

la zuen». Inguruko herrien «inperio goseak» desegin zuten Nafarroako Estatua, Ausa-Gaztelun adierazi zuten eta aldarrikapena egin zuten «inoiz Nafarroa izan

den lurraldeko biztanle guztiok Estatu bakar batean berriro elkartzeko eskubidea, herritarrok hala erabakitakoan eta egungo lurralde banaketaz gaindi». II

❖ ZINEA BITERIN

‘Dueños de la calle’ gaur helduentzat

Dueños de la calle pelikula emango dute gaur, 19:30etan. Bere aurka-ko akusazio bat dela eta, polizi batek sistemaren aurka joko du. II

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pixua salgai Hernanin. 3gela, egongela, sukaldea eta komuna. Kalefazio zentrala eta igogailuarekin. Deitu: 620 82 35 15.

Elgoibarko Gaztelekuarekin udaleku itxietara (Mendigoria, uztailak 9tik 16ra) joateko hezitzailea behar da (kontratua) Tfnoa: 943 74 32 28 (Argitze) edo gazteleku@elgoibar.org

Baserria hartuko genduke errentan, bi lagunek. Deitu: 656 703 814

Kamarero euskaldun bat behar, astelehenetik-ostiralerara, arratsaldean lan egiteko. Jornada erdiko kontratua. Deitu: 656 778 803

Volkswagen Transporter 2.5 tdi salgai, 102 CV, kanpinerako prestaturia. 2001 urtekoa, ITVa pasata. Bizikletak eramateko, aire egokitua, erremolkerako bola.... Deitu: 686 200 536

Etxea salgai Hernanin. 3 gela ditu, saloia, sukaldea eta komuna. Deitu: 943 55 25 85.

Sukalderako laguntzailea behar dugu Igeldoko sagardotegi batean lan egiteko, asteburuetan. Interesatuak deitu: 635 746 559

Pertsona euskalduna behar da Hernaniko tabernan udaran lan egiteko. Deitu: 616 589 445

Pixua salgai Floridan (La Cumbren). 60 m2 ditu, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, 60 m2ko garbiera eta trasteroa. Deitu: 627 501 957

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P- 1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behe. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologikoa eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

BIGARREN ESKUKO MERKATUAK 2 0 0 8



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamento de Desarrollo Sostenible



SAN MARCOS-EKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS

Zatoz merkatuak ezagutzera, gauza erabilgarri ugari aurkituko dituzu

M2SM
merka2sanmarcos

Berrerabilera sustatuz hondakin gutxiago sortzen dugu

Parte hartu!

Erreserbatu salmenta / truke postu bat Norbanakoak, elkarteak, ikastetxeak, dendak... guztientzat egongo da lekua!

Salmentak
Trukeak
Opariak
Bilaketak

Hondakin gutxiago
sortzeko Informazio
gune berezia



INFORMAZIOA eta ERRESERBAK 943 67 02 49
www.merka2sanmarcos.org

ORDUTEGIA: 10:00 - 14:00

